

31/07/2009

Azpeitia. "Trenaren Euskal Museoak Lurren Trenen lau zirkulazio eskainiko ditu asteburuan"

Trenaren Euskal Museoak lurren trenen lau zirkulazio eskainiko ditu asteburu honetan, Azpeitian dagoen Trenaren Museoaren instalazioen eta Lasao bitartean.

Gaur, zirkulazio bat eskainiko du museoak, 12.30ean. Bihar, bi zerbitzu aurreikusi dituzte, Azpeititik 12.30ean eta 18.00etan irtenda. Igandean, azkenik, zirkulazio bat eskainiko dute 12.30ean aterako dena.

Bestalde, abuztuaren 1. asteartetik ostiralera, Trenaren Euskal Museoak tren historikoen bi zirkulazio eskainiko ditu egunero. Zirkulazio horien buru diesel trakzioa lokomotorak eta automotoreak izango dira. Zerbitzu horiek 12.30ean eta 18.00etan irtengo dira.

EuskoTrenen Trenaren Euskal Museoak Azpeitiko Julian Elorza kaleko 8. zenbakian dago eta bertan Euskadiko trenbidearen historia ezagutu daiteke.